

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Perura bidaiatu du, hango San Ignacio Loyola Unibertsitateak honoris causa doktorea izendatuko duela eta

Okasio hori baliatuko du unibertsitate horrekin lankidetzaz-esparruko hitzarmen bat izenpetzeko

Lunes, 17 de septiembre de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Perura bidaiatu du San Ignacio Loyola Unibertsitateak honoris causa doktore izendatuko duela eta. CaixaBank-en Isidro Fainé lehendakariari ohorezko titulu bera ere emango dioten ekitaldia astelehen honetan, 19:00etan (Peruko ordutegian) egingo da unibertsitateak Liman duen campus-ean.



Barcina Lehendakaria.

Maila akademiko gorenena da eta, hala, unibertsitateak "haren bizi-ibilbide aipagarria"-ren aitortpena egin nahi du. Beste merezimenduen artean, azpimarratzen du Farmazian doktore dela Nafarroako Unibertsitatean eta, haren ibilbide politikoan "kargu publiko garrantzitsuak bete dituela haiek betetzen lehen emakumea izanik"; kargu horien artean daude, Nafarroako Gobernuako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitzako sailburua, Iruñeko alkate, Unión del Pueblo Navarroko (UPN) lehendakaria eta Nafarroako Lehendakaria.

Ekitaldiaren aurretik, Barcina Lehendakariak lan-bilera bat izango du unibertsitateko lehendakari-fundatzaile Raúl Diez Canseco-rekin, Edward Roekaert errektorearekin eta unibertsitateko beste zenbait agintarirekin. Bilera horretan hitzarmen bat izenpetuko dela aurreikusita dago Nafarroako Gobernuaren eta San Ignacio de Loyola Unibertsitatearen artean etorkizunean elkarlana sustatzeko.

Ondoren, ohorezko bazkaria izango da eta arratsaldean campus-a bisitatuko da, ekitaldia ospatu aurretik, eta bertako buru unibertsitateko lehendakari-fundatzaile Raúl Diez Canseco eta unibertsitateko errektore Edward Roekaert izango dira.